

II BILTZAR ARTEKO BATZARRA

2025eko otsailaren 25a
IRUN

LABen SINDIKALISMO
EKOSOZIALISTARAKO BIDEAN

ekosozialismoa

LAB¹
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA

zabaltzeko

Aurkibidea

TESI NAGUSIAK.....	5
SARRERA.....	6
1. DIAGNOSTIKOA	7
1.1. Krisi ekologikoaren larritasuna.....	7
1.2. Zer dago krisian?	8
1.3 Krisi ekologikoa, sistema patriarkala, koloniala eta arrazistaren parte.....	10
1.4. Enpresen eta gobernuen erantzuna	11
2. PROPOSAMEN IDEOLOGIKOA.....	12
2.1. Klase subjektua krisi ekologikoaren bitartez berreraikitzea.....	13
2.2. Planifikazioa, jabetza publikoa eta langileen parte hartzea	13
2.3 Burujabetza, eraldaketa sozioekologikoei buruz erabakitzeke	15
3. LAN ILDOAK.....	16
3.1. Eraldatuko diren sektoreak.....	16
3.2. Patronalak doikuntzak, kaleratzeak eta ixteak planteatzen dituenean	17
3.3. Zerbitzu publikoak eta eskubide sozialak hedatzea	18
3.4. Negoziazio kolektiboko klausulak	18
3.5. Lurraldean hedatutako ekintza soziosindikala.....	20
GLOSARIOA.....	23

Dokumentu honen erreferentziazko bertsioa euskarazkoa da. Hortaz, testuak doi-doiak ez diren kasuetan edota interpretazio ezberdinak egin litezkeen puntuetan, euskarazkoa izango da edozein xedetarako balio duen bakarra.

TESI NAGUSIAK

1. Egungo eta etorkizuneko gatazka politiko sozial eta sindikal guztiak larrialdi ekologikoak zeharkatuko ditu. Beraz, gure ekintza soziosindikalean begirada ekosozialista berezko bihurtu behar dugu:
adostasuna, 5etik, 4,21
2. Planifikazioa, langileon parte-hartzea eta jabetza publikoa: trantsizioa langileon interesen alde egingo dela bermatuko duten aldagai nagusiak:
adostasuna, 5etik 3,97
3. Eraldatu beharreko sektoreetan ekintza sindikala garatzeko gakoak: gatazkei aurre hartzea, trantsizio ekologikoa aintzat hartuz epe luzeko plangintza eta proposamenak, beti ere borrokak aktibatuz, langileen eskubideak bermatuz eta langileen protagonismoa bultzatuz:
adostasuna, 5etik 3,95
4. Patronalak murrizketak, kaleratzeak edo itxierak planteatzen dituenean, borrokak aktibatuko ditugu, enpresaren ardura adieraziko dugu (baita instituzioena ere) eta proposamen propioak garatuko ditugu. Proposamen horietan langileon enplegu eskubidea aldarrikatuko dugu:
adostasuna, 5etik 4,16
5. Sektore guztietan negoziazio kolektiboa ikuspegi ekologistaz bustituko dugu. Zentzu horretan lan osasuna, mugikortasuna, isurpenen energiaren eta materialen diagnostikoa eta ekoizpenaren eraldaketari heltzeko eztabaida-esparruen sorrera aldarrikatuko dugu:
adostasuna, 5etik 4,20
6. Erabaki politikoak hartzeak ezinbestean garamatza barne kultura eta antolaketan ere erabakiak hartzera:
adostasuna, 5etik 4,35

SARRERA

Azken hamarkadetan, euskal sindikalismoaren borroka ekologismoarekin bat egin du hainbat pasartetan, hala nola, langile-auzoen ondoko enpresek sortutako kutsadura salatzeko borrokan (1969ko Erandioko kasu paradigmatico eta tragikoan kasu), 80ko hamarkadan euskal lurraldean zentral nuklearrak inposatzearen aurkako mugimenduan edota mende aldaketarekin batera ugaritu diren inpaktu ekologiko handiko eta kutsu neoliberaletako azpiegituren kontrako borrokan.

Sistemak sustatutako ekoizpen- eta kontsumo-eredu jasanezinari lotutako ideiek eta bizimoduek euskal langileengan eragin handia izan badute ere, egon da eta badago ekologismoarekiko gertutasun bat. LAB, bere izaera soziopolitikoaren oinarri, honako bi ardatz hauek uztartzen saiatu da: batetik, ekonomia biziki industrializatuan enpleguaren eta lan-baldintzen defentsa egitea; bestetik, eredu sozioekonomiko ekologikoki jasanezinaren aurka egitea. Zorionez, Euskal Herrian ez du beste leku batzuetan bezainbesteko arrakasta izan enpleguaren eta ingurumenaren arteko dikotomiak, patronalak bere interesen mesedetan hauspotu ohi duena, hala enplegua nola ingurumena degradatzen dituen bitartean.

Nolanahi ere, krisi ekologikoak hartu duen tamainak gure hausnarketa eta praxi ekosozialista sakon dezagun eskatzen digu euskal sindikalistoi. Lan horretan murgildu da LAB azken urteotan, honako erabakiak hartuz: ekosozialismoari ardatz ideologiko gisa heltzea, 2017ko Biltzar Nagusian; Programa Sozioekonomikoa, besteak beste, ikuspuntu ekosozialistatik berritzea 2021ean; eta ponentzia hau bera plazaratzea, 2025eko otsaileko Biltzar Arteko Batzarrean eztabaidagai jarri eta onartuko duguna.

Dokumentu honen bidez, lan zentroetako gure ekintza soziosindikala lurreratu nahi dugu. Ibilbide luzeko bideari ekin nahi diogu, jakinda lehen faseetan urgentziaz eraldatu beharreko enpresetan izango duela eragin handiagoa, baina sektore guztietan isla izan behar duela.

Egoera ziurgabea bizi gara, aldaketak modu azkarrean ematen ari dira eta marraztu nahi dugun eraldaketa bidearen aldeko indar harremanak ez dira nahiko genituzkeenak. Era berean lantokietako errealitatea, baita langile klasearen atomizazioak eta indibidualizazioak hemen jasotzen direnak praktikan jartzeko zailtasunak eragiten dituzte. Esan gabe doa, borroka guztietan bezala, arrazoiak besteko pisua izaten duela alderdi emozionalak. Horregatik, bestelako agertoki zailetan egin bezala, sindikatu honek duen militantziaren ekina goraiatu nahi dugu. Konpromiso hori da Euskal Herriko langile klasearen aldeko trantsizio ekosozial justua borrokatzeko dugun bermea, eta sinetsita gaude hemen jasotakoak gure ekintza sindikala eraginkortu, helduleku berriak eraiki eta langileontzako agertoki onuragarriak sortzeko aukerak zabaltzen dituela. Eta LABen gure onena emateko prest gaude.

1. DIAGNOSTIKOA

1.1. Krisi ekologikoaren larritasuna

Duela zenbait hamarkada etorkizuneko arrisku gisa izendatzen zen krisi ekologikoa orainaldi beldurgarria da egun. Atmosferan berotegi efektuko gasen isurpenak metatzearen ondorioz, munduko tenperatura igo egin da dagoeneko, eta horrek muturreko gertakari meteorologikoak, uholdeak, lehorteak, suteak, uzten asaldurak eta gero eta lan-baldintza itogarriagoak ekarri ditu. Isurpenak metatu izana erregai fosilak erauzi eta erabili izanarekin lotu da gehienbat, munduko energia-kontsumoaren % 82 haien bitartez egiten baita. Erregai fosil batzuren agortze-zantzuak nabarmenak izanik ere, mundua kiskaltzeko adina erreserba dago. Klima-egoerarik okerreña saihesteko, egungo petrolioaren eta gas naturalaren erreserben % 60 lurpean utzi beharko genituzke, baita ikatz-erreserben % 90 ere.

Hala eta guztiz ere, berotze globala krisi ekologikoaren aldaera bat gehiago besterik ez da. Espezieak gero eta bizkorrago desagertzea eta biodibertsitatea galtzea ekosistema osoen bizi-funtzio ugari eraldatzen ari da. Ia milioi bat animalia- eta landare-espezie daude mehatxupean, eta espezie bakarra desagertzeak dakarren domino-efektuak beste asko eta askori eragin diezaioke. Intsektu basatien populazioak txikitu egin direnez landareen polinizazioa murrizteak dagoeneko fruta, barazki eta fruitu lehor gutxiago ekoiztea ekarri du. Gaur egun, askoz baliabide material gehiago erabiltzen dugu ziklo biofisikoen bidez leheneratu daitekeena baino: Baliabide materialen erabilera hirukoiztu egin da azken 50 urteotan, eta urteko % 2 baino gehiago ari da hazten. Horren ondorioz, erauzketak eta prozesaketak inpaktu handiak eragiten dituzte gizartean eta ingurumenean, eta baliabideak agortzeko arriskua ere handiagotu egiten da. Hori guztia gutxi balitz, elikadura sistemak ongarri kimikoekiko duen menpekotasunak (hauek erregai fosilekin lortzen dira) lurzoruen emankortasunaren agorpena azkartzen du.

Horregatik guztiagatik, bizitzaren aurkakoa den sistema kapitalista, patriarkala eta arrazista krisi ekologiko geroz eta sakonagoa eragiten ari da. Inpaktu larriak gero eta agerikoak dira, ekosistemetan zein ziklo biofisikoetan. Epe labur, ertain eta luzera ondorioak are larriagoak izango dira.

2025 urtearen hasierarekin, garai aurreindustrialekin alderatuta Planetaren tenperaturak 1,5°C-tik gorako langa gaudituz duela ohartarazi dute aditu eta zientifiko taldeek (arrisku muga gaudituz horrela), eta baita Planetaren orekan funtsezkoak edo kritikoak diren 9 mugetatik dagoeneko 6 behintzat gaudituz ditugula (Aldaketa klimatikoa, deforestazioa, biodibertsitatearen galera, produktu kimiko sintetikoak —plastikoak barne—, ur-gezaren agortzea, eta nitrogenoaren erabilera).

Errealitate horien inpaktua, baita jatorria ere, ez dago gizateria sortu zeneko garaian eta ez da berdina mundu osoan. Krisi ekologikoa historian une jakinetan eta nazioartean ezberdin kokatutako prozesu bat da. Mundu osoko berotegi-efektuko gasen isurpenen erdiak baino gehiago 1990etik aurrera egin dira. Iparralde globaleko herrialdeek ondasun material, energia eta landu daitekeen lur gehiena bereganatzen dute, beren garapen ekonomikorako. Gainera, krisi ekologikoaren ondorioak nazioartean ezberdin banatzen dira: hain zuzen, erantzukizun txikiena duten herrialdeak dira eragin larrienak jasotzen dituztenak, baita egoera zaurgarrienean daudenak ere. Logika maltzurra elikatzen da horrela: potentzia ekonomikoek munduko merkatua gidatzen dute estraktibismoaren bidez Hegoalde globala ustiatu, arpilatu eta espoliatzen jarraituz eta langile klasearen bizitzak krisi ekologikoaren ondorioak pairatzera arriskatuz. Ondorio horiek ere desberdinak dira langile-klasearen barruan, eta krisi ekologikoan emakumeek* eta migratutako eta arrazializatutako pertsonak jasaten dituzte inpaktu, indarkeria eta pobretze handienak.

Egoeraren larria ikusita, komunitate zientifikoak eta nazioarteko organismoek hamarkadak daramatzate errepikatzen premiazkoa dela sistema energetikoak, nekazaritzako elikadurakoak eta hirigintzakoak eraldatzea. Egoera klimatiko

okerrenak saihesteko, sakoneko neurriak hartu behar dira, hamarkada honetan sektore guztietan isurpenak murrizteko eta mundua 2050erako deskarbonizatzeko. Tarte hori txikituz doa urtez urte. Halaber, presazkoa da ondasun naturalen erauzketa eta erabilera murriztea, bereziki iparralde globaleko herrialdeetan. Ildo horretan doaz iparralde globalean desazkunde bidezko eta planifikatuaren alde egiten dutenak. Proposamenaren abiapuntua baieztapen garrantzitsu bat da: **posible da energiaren eta materialen erabileran desaztea, eta, aldi berean, langile sektore zabalen bizi-baldintzak hobetzea**. Gakoa da, hortaz, eraldaketa sozioekologiko hori nola lor daitekeen.

Euskal Herrian, beroketa globalaren ondorioak sumatzen dira dagoeneko, eta datozen urteetan joera horiek larritu egingo dira. Aurreikuspenen arabera, bero-oldeek udako egunen % 30 gainditu ahalko dute hurrengo urteetan, eta euriak % 15 eta % 20 murriztuko dira mende amaierarako. Herritarren gehiengoa bizi den udalerrietan muturreko gertakari klimatikoek eragingo dute, adibidez, uholdeek, itsas maila igotzeak eta bero-oldeek. Horrekin batera, lurzorua degradatzeko prozesuak azkartuko dira, esaterako, higadura, materia organikoaren galera, kutsadura, gazitzea, biodibertsitatearen galera eta luiziak. Hori guztiak bizitzaren sostengarritasuna arriskuan jartzen du, muturreko beroak heriotzak areagotzen dituelako, gaixotasunak transmititu ditzakeen intsektu tropikal gehiago egongo delako eta basoko suteen maiztasuna eta indarra handituko delako.

Hori bai, argi izan behar dugu gure lurraldeak ez dituela krisi ekologikoaren ondorioak jasaten soilik, horiek sortzen lagundu ere egiten duela. **Euskal Herriko eredu sozioekonomikoak per capita isurpen handiak dakartza, Europar Batasuneko batezbestekoa baino handiagoak**, eta munduko batezbestekoa baino askoz altuagoak. Eredu horren ezaugarri nagusietako bat da erregai fosilekiko eta ondasun natural berriztaezinekiko mendekotasun handia duela. EAEko eta Nafarroako Foru Erkidegoko energiaren autohornikuntza-tasa % 9-17 artekoa da, eta, hortaz, kontsumitutako energia-iturrien % 83-91 artean kanpotik datoz. Petrolioaren kontsumoaren % 70 baino gehiago garraioaren sektoreak eragiten du, eta gas naturalaren kontsumoaren % 80, aldiz, industriak, findegiek eta zentral termoelektrikoek. Honekin batera, nekazaritzako elikaduraren arloko mendekotasun handia dugu, EAEn kontsumitutako elikagaien % 90 baino gehiago beste lurralde batzuetan lantzen baitira. Azken hiru hamarkadetan, bikoiztu egin da gainazal artifizializatuaren kantitatea, eta, aldi berean, nekazaritzako lurzoru emankorra nabarmen txikitu da, kezkagarri suertatzeraino.

Ezinbestekoa da egungo eredu sozioekonomikoa eraldatzea, isurpenak, energia-kontsumoa eta ondasun naturalen kontsumoa zorrotz jaisteko, krisi ekologikoari nazioarteko ezberdinkeria eta dinamika neokolonialak handitu gabe heltzeko. Langileon lan eta bizi baldintzak defendatzen ditugun bitartean eta justuki horregatik ere, bidezkoa eta planifikatua izango den desazkundera bultzatzea da sindikatu moduan geure gain hartu behar dugun zeregina.

1.2. Zer dago krisian?

Krisi ekologikoa ez da fenomeno isolatu bat, ordea. Krisi kapitalistaren adiera bat besterik ez dela ulertu behar dugu. Kapitalismoa etekinak lortzea beste xederik ez duen sistema ekonomiko eta politikoa da. Etengabeko etekin-bilaketa horrek munduko lehia indartzen du, materialen eta energiaren erauzketa eta erabilera biderkatzen du, merkatua eguneroko bizitzako gero eta alderdi gehiagotara zabaltzen du, lan-indarraren esplotazioa handitzen du eta ordaindu gabeko zaintza-lanak bereganatzen ditu. Batez ere emakumeek* egindako bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren lanak gauza bihurtu eta merkantilizatzen ditu, haien gizarte-balioaz jabetuz, ikusezin bihurtuz eta prekarizatuz.

Hori argi eta garbi ikusten dugu azken aldian. Energia-kontsumoa eta isurpenak handitzen diren hamarkadetan, globalizazioaren eta deslokalizazioen bitartez lanaren nazioarteko banaketan sakontzen da, produktibitatearen hobekuntzak moteldu egin dira, lan etekinek kapitalen etekinetan duten partaidetza zeharo jaitsi da eta inbertsio pribatuak finantzetara egiten du ihes, ekoizpen-esferak ez duelako nahiko errentagarritasun ematen.

Hortaz, krisi ekologikoa krisi kapitalistaren garapenaren ondorio bat dela ulertu behar dugu. Etekinak lortzea eta kapitalaren metaketa handitzea gero eta zailagoa denez, gero eta baliabide natural gehiago bereganatu, langileon lana – ordaindua zein ordaindu gabekoa- gero eta gehiago esplotatu eta ekoizpenaren eta kontsumoaren antolakuntza garatzen du sistemak. Ez dira fenomeno berriak, sistemak berezkoa duen joera baita: ezin dugu ulertu 80ko eta 90eko hamarkadako berregokitze industrialak krisi ekologiko eta baliabide energetikoen eta materialen erabilera handi baten mende dagoen egungo egoeratik bananduta dagoen prozesu gisa.

Irabazien eta hazkunde ekonomikoaren tasak dira sistema kapitalistak garapen egonkorreko behar dituen baldintzak: horiek kale egiten dutenean, langabezia handitzen da, lan-baldintzak okertzen dira, merkatua eremu gehiagotara zabaltzen da, gorputz eta lurralde gehiagoren espolioa eta prekarizazioa sustatzen da eta ekoizpen-egitura berrantolatzen egiten da. Amaigabeko hazkunde gose horrek bi oztoporekin egin du topo: muga biofisikoekin eta metatze-krisiarekin.

Era berean, argi izan behar dugu krisi ekologikoan sakontzea gero eta arazo handiagoa dela etekinak lortzeko eta kapitala metatzeko ere. Besteak beste, muturreko fenomeno meteorologikoen ondorioz azpiegiturak suntsitzean, kapital finkoa galtzen da; lehengaien prezio-igoerak lehia handitzen du eta ekoizpen txikiena duten enpresak zigortzen ditu; nekazaritzako etekinak murrizteak elikagaien kostua handitzen du, eta lan indarren erreproduzio minimoa bermatzeko soldatak igotzera behartzen du. **Hortaz, krisi ekologikoak bi norabidetan jotzen du krisi kapitalistan: ondorioa eta sakontzea.**

Horregatik, ingurumeneko ondorioetan soilik erreparatzen duten ikusmolde erredukzionistetatik ere ihes egin behar dugu. Krisi ekologikoa datozen hamarkadetako panorama politiko, ekonomiko eta sozial guztia baldintzatuko duen bektore bat da. Gutxi-asko, presente egongo da etorkizuneko lan-gatazketan. Inflazioa dagoenean soldatak igotzeko borrokan, osagaien hornikuntza-faltagatik malgutzeko neurrien erantzunean, garraioa eta elikadura garestitzean, ekoizpenean inbertsio ezagatik industria astuna gainbeheran egotean eta austeritateagatik zerbitzu publikoen finantzaketan egindako murrizketetan. Horietan guztietan, krisi ekologikoa gero eta garrantzitsuagoa izango da. Horregatik, hain zuzen, **datozen urteetako borroka sindikala ere krisi ekologikoak zeharkatuta egongo da.**

Baieztapen horrek, krisi ekologikoaren kausa iparralde globaleko herritarrek hartutako bizimoduetan edo kontsumo-erabakietan ezartzen duten ikusmoldeetatik aldendu behar gaitu. Gakoa da langile-klaseak egiten dituen jarduera horietatik gehiena ez dela norberaren nahien araberakoa, baizik eta egiturazko faktoreen ondoriozkoa.

Arazoa da, ez daukagula inondik inora gure existentziaren beraren baldintza ekologikoen egiazko kontrolik. Ez dugu hautatzen egunero lanerako autoa hartu behar izatea, gaizki isolatutako pisu bat berotzeko gasa gastatu behar izatea, ordaindu dezakegun supermerkatuko janari merkea non lantzen den, ezta industria baten ekoizpen-prozesuan zer lehengai erabiltzen diren ere. Arazoa da lana (enplegua eta zaintza lanen kate globala), energia eta lurraldea interes kapitalisten arabera antolatzen direla.

Hala ere, egiturazko mendekotasunen jabe izanik, ezin dugu gure erantzukizuna saihestu. Beste esparru batzuetan bezala, hemen ere pertsonala politikoa da, eta gure ekintzekin eraiki nahi dugun jendartearen gainera gaitasun pedagogikoa dute. Kontziente izan behar dugu Iparralde globaleko herrialdeen ongizate eta kontsumo modua Hego globalaren ustiapenak eta espolioazioak sostengatzen duela. Era berean, dugun bizimodu kontsumistaren hedapena gizartea egonkortzeko eta eredu ekonomiko kapitalista, patriarkal, kolonial eta ekozida horretan onurak lortzeko bide bat izan dela onartu behar dugu. Egungo ereduari eutsi behar zaiola defendatzeak, beste herri batzuen askapen emantzipatzailea oztopatzea dakar, eta Hegoalde globaleko langile-klasea menderatze kapitalista eta kolonialaren logikapean mantendu.

Krisi ekologikoaren arrazoi eta ondorioak joera autoritario eta erreakzionarioaren eskutik datozela esatea, beraz, ez da inozokeria. Gutxi batzuen pribilegioak mantentzeko ahaleginak askoren eskubideen murrizketa eta desberdintasunak areagotzea dakar. Horrek indartu egiten ditu azken aurrekoa azkenaren aurka jartzea bultzatzen duten proposamenak.

Testuinguru globalean gerra erregimena hedatu eta akaparazioa justifikatzeko ekofaxismoan sakontzea izango da elite ekonomiko eta politikoei egingo duten eskaintza.

Esandako guztia dela eta, **jarrera politiko ekosozialista hartu beharrean** gaude. Hortik, ulertzen dugu langileen bizi-baldintzak hobetzearekin batera materialen eta energiaren erabileraren murriztea bermatuko duen premiazko eraldaketa sozioekologikoak gatazka sortzen duela kapitalarekin eta etekinak bilatzeko bere helburuarekin. Horrek baldintzatu egiten ditu ezarri beharreko estrategia politiko eta sindikalak.

1.3. Krisi ekologikoa, sistema patriarkala, koloniala eta arrazistaren parte

Krisi ekologikoa kapital-bizitza gatazkaren dimentsioetako bat da. Sistema kapitalista ez da soilik norbanakoen bizitzen aurkako indarkeriazko sistema bat, baizik eta etengabeko erasoaldia eragiten du bizitza kolektiboaren, harreman sozialen, afektiboen eta biziraupenaren oinarri material eta sinbolikoaren aurka. Zapalkuntza anitzen sistema da, menderatze patriarkala, koloniala eta arrazista konbinatzen dituena, gorputz eta lurralde gero eta gehiago ustiatzeko eta bazterrean kokatzeko, gutxi batzuen aberastasuna handitzeko eta haien botere ekonomiko, politiko eta sinbolikoa iraunarazteko.

Bere garapen historikoan, naturaren, emakumeen* eta migratutako eta arrazializatutako pertsonen gaineko dominazioa eta indarkeria prozesu beraren parte izan dira. Ekofeminismoaren ekarpenak eta Euskal Herriko Mugimendu Feministan garatutako hausnarketak jasoz, krisi ekologikoaren auzia sistema heteropatriarkal, arrazista eta kolonial baten baitan ulertu behar dugu.

Lanaren banaketa sexualaren bidez, eguneroko bizitzari eusteko ezinbestekoak diren zaintza lanak emakumeei* inposatu zaizkie. Historikoki ikusezinak eta gutxietsiak izan diren lanak. Horregatik, funtsezkoa da lanaren zirkuitu osoari ekitea eta haren zabaltasun osoa aitortzea, ekoizpen eta erreproduzio lanak deritzonak barne.

Aldi berean, nagusitasun kolonial eta arrazista ere indartu eta areagotu egiten da krisi ekologikoarekin txirikordatzean. Aipatu dugun bezala, Ipar globalean gure lurraldeek duten ongizate, ekoizpen eta kontsumo eredua Hego globalaren ustiapenean eta espoliazioan oinarritu da. Mendeetako arpilatze eta indarkeria kolonialari erreparatu gabe ezin da gure egungo posizioa azaldu. Euskal Herrian dugun ongizate, ekoizpen eta kontsumo eredua, Hego Globaleko herrialdeetako erregai fosilen, ondasun naturalen eta elikagaien estraktibismoari lotuta dago, energia eta materialen inportazioarekiko erabateko menpekotasunean. Sindikalismo ekosozialistak zeregin garrantzitsua du ekonomia globalaren hornidura kateetan dugun posizioaren jabe izan eta honen bidez klase elkartasuna eraikitze orduan.

Menderatze eta indarkeria hori arrazismoaren eta migrazio-politiken bidez ere garatzen da. Krisi ekologikoak prozesu horietako asko areagotzen ditu. Arpilatze- eta espoliazio-harreman kolonialek jendarte eta ingurumen gatazka ugari sortzen dituzte, eta aldi berean, klima-aldaketak eragin berezia du lurralde horietan. Horrela, bizitzarako baldintza sozial eta naturalen degradazioa kanporatze faktore bihurtzen da; eta beste aukerarik ez duten komunitate eta herrien nahitazeko desplazamendua eragiten du, migrazioa bizirauteko estrategia bilakaturik.

Horrela, migratutako eta arrazializatutako pertsonen krisi ekologikoaren ondorioen arrisku berezia duten lanak egiten dituzte, noiz eta atzerriartasun eta lan legeriak zaurgarritasun egoera betikotzeko egitura juridiko-instituzionala osatzen duen. Etxeko eta zaintzako enplegu feminizatuarekin batera, pertsona horien okupazio gehienak nekazaritzako, abeltzaintzako, eraikuntzako eta meatzaritzako peoiak, igeltseroak edo leiho-garbitzaileak dira. Sektore horiek, hain zuzen ere beren arrazakeria eta informaltasun mailarengatik, oso lan-baldintza makurrak dituzte, Lan Ikuskaritzaren muturreko utzikeria bizi dute eta lan osasunari dagokionez babesgabetasun handia dute. Laburbilduz, dagoeneko erabat prekarizatuta daude, eta, gainera, lan arrisku handiagoak izango dituzte klima aldaketaren ondorioz.

Horregatik da beharrezkoa lan arrazakeriaren eta krisi ekologikoaren aurkako borroka uztartuko dituen sindikalismoa. Egoera prekarioan dagoen lanaren esplotazioa areagotzeko arriskuari aurre egin behar diogu. Errentagarritasuna,

murritzeak edo hazkunde ekonomiko txikiak menderatzea, esplotazioa eta indarkeria arrazista areagotzea ekarriko du. Baldintza horiek ongarri emankorra bilakatu daitezke diskurtso erreakzionarioak areagotzeko eta pobrezia kriminalizatzeke, langile klase migratu eta arrazializatuaren aurkako arrazismoa areagotuz.

Beraz, gure sindikalismoak sistema kapitalistak eragindako hainbat zor daudela onartu behar du. Zor ekologikoa ingurumen suntsiketagatik, zor koloniala lurraldeen eta gorputz migratu-arrazalizatuen arpilatzearen ondorioz eta zor patriarkala zaintza lana eta bizitzari eustea aurrera ateratzen duten gorputzen gainean. Sindikalismo feminista, antiarrazista eta ekosozialista da egoera borrokatzeko dugun tresna.

1.4. Enpresen eta gobernuen erantzuna

Krisi ekologikoa okerrera doa, mundu osoan moteltze ekonomiko luzea datorren honetan, txikiak baitira inbertsio-tasa eta produktibitatearen, soldaten eta ekonomiaren hazkundea. Horrek baldintzatu egiten ditu enpresen eta gobernuen erantzunak.

Testuinguru honetan, instituzio eta enpresa arloko erantzuna bi eredutan bereiz dezakegu. Batetik, kapitalismo fosil klasikoa dugu: enpresen etekinak ahal beste handitzeko baliabide natural eta erragai fosilen kontsumo intentsiboan oinarritzen dira. Ekosistemak oztoporik gabe espoliatzen eta suntsitzen ditu, eta ez da isurpenak, energia edo materialak murrizteko helbururik onartzen.

Bestetik, kapitalismo berde berria daukagu. Etekin pribatuen helburua ingurumen-arauketekin eta isurpenak murrizteko eta ekonomia zirkularreko helburuekin bateratu nahi da. Ereduek merkatuaren tresnak erabiltzen ditu trantsizio energetikoa eta ekoizpenaren eraldaketa pizteko, enpresa handientzako pizgarri, dirulaguntza eta laguntza publiko askorekin batera.

Bi ereduak kapitalaren etekin pribatua lehenesten dute eta erantzun sekurtario, autoritario eta inperialistak sustatzen dituzte. Hortaz, arbuia egiten dugu kapitalismo berdearen edo marroien artean aukeratu behar izateko dikotomia faltsua.

Hori bai, bata edo bestea gailentzeak, baldintzatu egiten du gu mugitzen garen agertoki politikoa, baita horri aurre egiteko zeregin sindikalak ere. Gure testuinguru geografikoan, gure garaian, gero eta erdigunerago dago kapitalismo berdea. Horrek ez du esan nahi beti hala izango denik, tokiko eta nazioarteko aldaketa politiko eta ekonomikoek kapitalismo fosil klasikora itzultzea ekar baitezakete.

Gainera, kapitalismo berdearen ereduarekin batera, Europa eta Estatu Batuak hegemonia eta zentraltasuna galtzen ari dira, munduko lehian Txina gero eta leku handiagoa hartzen ari baita. Hori dagoeneko ondorioak izaten ari da Europako proiektu ekonomikoan, kapitalaren interesak bermatzeko merkatu-gerratan sartu eta merkatuan esku-hartze publikoa handitzen ari baita.

Erreproduktzio soziala ahalbidetzen duten baldintzak suntsitzen ari direla eta metatze-zikloa oztopatzen ari dela eta, gobernuak beren burua behartuta ikusi dute ekoizpenaren arloan esku hartzera. Ahalegin kontraesankorrak egiten dituzte, kapitalaren joera autosuntsitzaileen kontrako erantzun bat koordinatzeko eta, aldi berean, enpresen lehiakortasuna bermatzen saiatzeko. Honen adibidea da ondasun naturalen eta elikagaien hornidura bermatzeko, trantsizio energetikorako politika publikoak garatu dituztela, baita izapide administratiboak bizkortu, industria-garapen berderako diru-laguntza publikoak sortu, industriako ekoizpena eta mugikortasuna arautu. Modu orokorrean, **isurpenak murrizteko eta trantsizioa gidatzeko merkatu-mekanismoak lehenesten ari dira.**

Estrategia horren arriskua da deskarbonizazio antolatu gabe bat eraikitzea sektore pribatuen interesek kontrolatua eta ez lehentasun publikoen arabera. Ikusten ari gara haien trantsizio-eredua trantsizio energetikoan bakarrik oinarritzen dela, ez dituzte aintzat hartzen edo zaildu egiten dituzte egitura sozioekonomikoaren eremu askotan egin beharreko eraldaketak (adibidez elikadura sistemarena eta lurralde-antolaketarena). Gainera, trantsizio-estrategia baten arrakasta,

zeinak inbertsio pribatua piztea duen oinarri, kapitalak dituen etekin aurreikuspenei lotuta dago. Horrek bazterrean utziko lituzke sistemarentzat errentagarritasun eta produktibitate baxukoak diren jarduera ugari eta funtsezkoak direnak trantsizio ekosozial bidezkorako, esaterako, zaintza-lanak eta ingurumena lehengoratzekoak.

Ekoizpenaren eraldaketa behartzen duten lege aldaketekin bi jarrera nagusi izan ohi dute enpresek. Batetik, negozio eremu berriak garatzeko, haien merkatuak zabaltzeko eta etekinak handitzeko aukera gisa ulertzen dute. Hala ere, askotan hori ez da gertatzen inpaktu ekologiko handieneko negozio-adarrak alde batera utzita, baizik eta horiek mantenduta beste eremu berrien alde eginez. Energia enpresen adibidea adierazgarria da: Petronorrek hidrogeno berdea eta erregai sintetikoak txertatu ditu bere negozio-ereduan, baina ez dio utzi petrolio finntzeari.

Bigarren jarrera ekoizpen-prozesuak berrantolatu eta kostuak doitzea justifikatzeko baliatzea da, hau da, enplegua prekarizatzeko edo suntsitzeko. Egun, eskaria txikia denez eta araudiak betetzeko ekoizpeneko inbertsioak nahitaez egin behar direnez, enpresak, deskarbonizazio-prozesua aitzakiatzat hartuta, doikuntzak, kaleratzeak eta itxierak justifikatzen ari dira.

Beraz, hazkundera bultzatzean eta inbertsio pribatua piztean oinarritzen dira lan-inpaktua leunduko duen ustezko "bidezko trantsizioa" xede duten politika publikoak. Proposamen horiek adostasunean eta elkarriketa sozialean oinarritzen dira, fondoan ez ezik forman ere kontrabotere sindikalismotik borrokatu eta salatu duguna. Gatazkarik gabeko prozesu gisa aurkeztu nahi dizkigute eraldaketok, klase antagonismorik egongo ez balitz bezala.

Horrela, enpresa pribatuak gidari dituen trantsizioa proposatzen zaigu, gobernuaren rola lehiakortasuna eta hazkundera mantentzeko inbertsioa noranzko egokian sustatzera mugatuz. Proposamen horren baitan, langile-klasea merkatuaren eta gobernuaren gidaritzapean eraldaketa handien subjektu pasibo hutsa da, batzuentzat esplotatu edota besteentzat agian babestu beharrekoa, baina batean zein bestean agentzia propiorik gabe.

2. PROPOSAMEN IDEOLOGIKOA

Lanaren zapalkuntza eta naturarena (bizitzarena) kapitala metatzeko prozesu beraren parte dira, eta prozesu horrek, aldi berean, bataren zein bestearen agortzea dakar. Langileok etengabe gaude behartuta gure lan-indarra saltzera eta epe labur, ertain eta luzeko gure interesen eta ongizatearen aurkako jarduerak egitera. Aldi berean, behartuta gaude krisi ekologikoa bultzatzen duten salgaiak kontsumitzera, ez baitugu beste aukera eskuragarririk. Hori dela eta, langileok datozen hamarkadetan egin beharreko eraldaketa sozioekologikoko prozesuaren erdigunean gaude.

Guk uko egiten diogu kapitalismo berdeak edo marroiak esplotatuko gaituen aukeratzeari; aitzitik, sistema kapitalista gainditzeko asmoa dugu, trantsizio ekosozialistako proposamenei bidea eginez. Honakoa da proposamen honen funtsa: sektore estrategikoen kontrol publikoa; ekonomiaren plangintza eta burujabetza politiko-ekonomikoa eta eguneroko bizitzako funtsezko eremuak desmerkantilizatzea, hala nola, etxebizitza, garraioa eta oinarrizko hornidurak.

Gure helburua sistema sozioekonomikoa errotik eraldatzea da, behar ekologiko eta sozialek gidatuta, gutxi batzuen etekin pribatuek gehiengoa menpean izan ez dezaten. **Bizitza bizigarriak eta bideragarriak helburu, enpleguaren, zaintza lanen eta aberastasunaren birbanaketa justuaren alde egiten dugu: Banaketa hirukoitza da gure proposamena.** Helburu hori ezingo da bete ez bada gaurko borroka zehatzetatik, klase-boterea indartuz eta egungo ordena hausteko konpromisorako jarrera politikoa hartuz. Sindikatuak bere lekua hartu behar du eta dagozkion eginkizunak egin behar ditu eraldaketa ekosozialista xede dugun honetan.

Argi eta garbi, Euskal Herriko ekoizpen, banaketa eta kontsumo sistemaren berrantolaketa sustatzea, planifikatzea eta eztabaidatzea dagokio sindikalismo soziopolitikoari. Zeregin horiek ez dira sindikatutik kanpoko zerbait, baizik eta datozen hamarkadetako lan-gatazkak jokozealaia eta gure eragin esparrua. Esan dezakegu krisi ekologikoa etorkizuneko lan-gatazka gehienak zuzenean zein zeharka gurutzatuko dituen bektorea dela. Horrek sindikatuko eztabaidetan, plangintzan eta eguneroko ekintzan bidezko trantsizio ekosozialaren aldeko borroka txertatzera behartzen du.

LAB sindikatuaren proiektu politikoari hertsiki lotuta dagoen borrokaz ari gara, beraz. Hain zuzen, krisi ekologiko betean, banaketa hirukoitzaren alde egiteko ezinbestean behar da kontrabotere-sindikalismoa. Opila txikitzen bada, bidezkoa den banaketa lortzeko gero eta gatazka handiagoa beharko da. Are gehiago baliabideen eta energiaren kontsumoan nazioartean dagoen desoreka testuinguru honetan. Banaketa hirukoitzaz gain, bidezko trantsizio ekosozial baten aldeko borroka sindikatuaren aldarrikapen historikoekin ere lotzen da, hala nola, lanaldia murriztearekin, sektore estrategikoak publiko egitearekin edota zaintza lanak aitortu, banatu eta duintzearekin, besteak beste.

2.1. Klase subjektua krisi ekologikoaren bitartez berreraikitzea

Esan dugunez, enpresak eta gobernuak ez dira gai eraldaketa sozioekologikoa behar den tamainan eta abiaduran egiteko. Trantsizioa errentagarri izan eta kapitalaren etekinak handitzen jarraitzeko betekizuna zentzugabea eta mugatzailea da. Bide horretatik ibiltzeak jendarte arrakalak handitzea eta trantsizio ekologikoaren ideia beraren aurkako mesfidantzan sakontzea eragingo du.

Hori dela eta, sindikalismo ekosozialistak bi erronka handi ditu: batetik, ekoizpen sektoreen eraldaketa eta berrantolaketa egiten ari diren moduari aurre egin behar dio, enpresa pribatuek eta gobernu batzuen estimuluek bultzatua baita. Askotan, eraldaketa horiek langile-klasearen aurkako eraso zuzenak izango dira eta, beraz, erantzun egin beharko dugu, lan baldintzen prekarizazioaren aurka eta enplegu eskubidearen alde. Halaber, defentsarako strategiari ekintza propositibo propioak gehitu beharko ditugu. **Gatazka sindikaletan eta negoziazio kolektiboan bidezko trantsizio ekosozialaren aldeko aldarrikapen zehatzak egin behar ditugu, eta langile klasea protagonista bihurtu behar dugu.**

Horrela, ekonomiaren eta eguneroko bizitzaren birpolitizazioa sustatu behar dugu. Zeregin horrek aukera ematen digu auzitan jartzeko nola, zer eta norentzat ekoizten den, harik eta sistema kapitalistaren irrazionaltasuna ikusarazi eta zentzugabetzat eta suizidatzat jo arte. Birpolitizazio etengabe horrek gatazka zehatz bakoitzetik abiatuta eredu sozioekonomiko alternatibo bat planteatzen duten posizio erradikalagoak hartzeko aukera irekitzen dio sindikalismoari. Gainera, birpolitizazio horrek bidea irekiko digu klase subjektua berreraikitzen aurrea egiteko, etorkizuneko erronkei heltzeko ezinbestekoa zaiguna.

Maila ideologikoan, beraz, enpleguaren aurka enpresek egiten dituzten erasoetatik jo eta su defendatzetik harago doa helburua. Krisi ekologikoari lotutako lan-gatazkak kontrabotere-sindikalismoa garatzeko baliatzea, klase gisa dugun boterea indartu, kapitalaren dominazioa ahultzen duten garaipenak lortu eta hainbesteko premiaz behar dugun bidezko trantsizio ekosozialaren protagonista gisa langileria kokatzea sindikalismo eraldatzaileak duen zeregina dela uste dugu.

Horretarako, gehiago erreparatu behar diogu nola galderari zer galderari baino: borroken arrakasta neurtuko duena izango da herri antolaketa eta kontrabotere-sindikalismoa indartu izana. Modu probokatzalean esanda: hobe da industria kutsatzaile bat funtzionamenduan mantentzea, baldin eta gatazka piztu, antolakuntzan sakondu eta kontzientzia mailan eragin badugu, ehun kolektiboa desaktibatzea eta suntsitzea ekarriko duen itxiera baino. Herri-antolakuntzaren indartze hori ezinbesteko baldintza izango da etorkizuneko borroka ofensiboari eta propositiboari heldu eta ekoizpen-erlaketaren orientazioari buruz erabakitze gaitasuna izateko.

2.2. Planifikazioa, jabetza publikoa eta langileen parte hartzea

Hiru ardatz daude eraldaketa sozio-ekologikotik eratorritako gatazketan gakoak izango direnak: planifikazioa, jabetza publikoa eta langileen partaidetza. Iparrorratz horrek lagundu egin diezaguke egoera nahasi eta nahasgarrian norabidea topatzen.

Batetik, aipatutako hiru horiek izango dira gure proposamenak markatuko dituzten aldagai nagusiak. Bestetik, lurraldean garatzen diren proiektu energetikoen aurrean LABen posizioa finkatzeko balioko diguten irizpideak ere izango dira.

Egungo politika publiko gehienen helburua oro har trantsizio energetikoarekin lotutako eremu batzuetan inbertsioa sustatzea izaten ari da, baina diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten enpresei apenas ezartzen zaizkie enplegua mantentzeko betekizunak. Sindikalismotik planteamendu horiek baztertu behar ditugu, eta eraldaketa sozioekologiko sakonek eragindako sektoreen gaineko planifikazio tresnak borrokatu beharko ditugu. Energia, garraioa, elikadura, eraikuntza eta industria dira, besteak beste, sektore horietako batzuk, baita zaintza lanena eta basogintzarena ere, adibidez. Badakigu sektore horietan guztietan zer eraldaketa beharko litzatekeen bidezko trantsizio ekosozialari heltzeko. Soilik planifikazioaren bitartez berma dezakegu eraldaketa horiek behar diren epeetan betetzen direla, enpleguan eta lan-baldintzetan eragin traumatikorik izan gabe. Plangintza publikorik ezean, merkatuak eta etekin aurreikuspenak gidatuko dute desordenatua, bidegabea eta ez-nahikoa izango den trantsizioa.

Planifikazioarekin batera, ezinbestekoa da kontrol publiko zorrotza, baita eraldatzen ari diren sektoreen jabetzan esku hartzea ere. Hortaz, jabetza publikoak bereziki eginkizun garrantzitsua du bidezko trantsizio ekosozialean. Aldarrikatzen dugu diru publikoa ezin dela esku pribatuetara bideratu, jabetzaren inguruko inolako ondoriorik gabe. Enpresen jabetzan alor publikoa edo publiko-komunitarioa sartzeak bermea izan behar du, batetik, datozen urteetan ekoizpen-erlaketak egiteko moduaren kontrol demokratikoa handitu dadin eta, bestetik, merkatuak, lehiak eta etekin-asmoek soilik gidatuz gero inoiz gertatuko ez liratekeen erlaketak eta inbertsioak garatzeko palanka izateko. Ustez errentagarritasun eta produktibitate txikiko sektoreak bultzatzeaz ari gara, esaterako, zaintza eta ingurumena leheneratzea. Honek bat egiten du zaintza sistema publiko komunitarioaren alde eta prekarizatutako eta feminizatutako funtsezkoa den sektore baten pribatizazioarekin amaitzeko sindikatutik egiten ari garen borrokarekin.

Modu berean, kapitalismoaren eraldaketa autoritarioa bizi dugun honetan, esku-hartze publikoan duen eraginaz ere

gogoetatu beharrean gaude. Esana dugu geroz eta diru publiko gehiago bideratzen dela esku pribatuetara, are inolako kontrol eta baldintza publikorik gabe. Sektore estrategikoen jabetzarekin batera, oro har esku-hartze publikoaren norabidea eta izaera ere borrokatu behar dugu, izan enpresen kapitalean parte hartzea galdegiten dugunean eta berau zertarako izan behar duen. Diru publikoa enpresetara bideratzen denean honen kontrol eta baldintzapenak zorroztea ezinbestekoa izango da (orain arteko enplegu bermearen eskaerari dibidendo banaketa, lanaldi murrizketa edota baldintza eta klausula ekologikoak komitearekin adosteko beharrizana gehituz adibidez).

Azkenik, sindikatuaren zereginetan langileek beren sektore ekonomikoen eraldaketan parte har dezatela bermatzeko mekanismoak lortzea ere kokatu behar dugu. Zergatia argia da: batetik, trantsizioa gehiago ez dadin aurkeztu gatazkarik gabeko prozesu bat balitz bezala, eta interes kontrajarriak daudela aitor dadin. Bestetik, ezinbestekoa delako ekoizpenaren eraldaketaren eta trantsizio ekologikoa dela eta lanpostuetan ondorioak biziko dituzten langileek dagozkien ekarpenak egitea, erabakimena eta erabakiak garatzeko gaitasuna izatea. Parte hartzeko eskakizuna ekintza sindikalaren tresna indartsu bat izan daiteke, erabilgarria negoziazio kolektiboko uneetan zein egokitzapenen, kaleratzeen edo itxieren ondoriozko gatazka-garaietan. Eta nola ez, pedagogia egin eta langileekin birpolitizazio lana egiteko. Prozesu horretan, sektore espezifikotako langileen parte hartzeaz gain, aktibazioa lantokitik harago zabaltzeko formulak ere bilatu beharko genituzke, bereziki industria kutsatzaileen kasuan. Enpresa horien etorkizunari buruzko eztabaidak tokiko komunitatean antolatutako herri eragileak, lurraldean bizi diren pertsonak eta jarduera horrek egunero eragiten dien pertsonak ere barne hartu beharko lituzke.

Langileek trantsizioan parte hartzearen proposamena **Bidezko Trantsizio Ekosozialerako Batzordeen** proposamena da. Egitura hori lehen aldiz LABen 2021eko Programa Sozioekonomikoan jaso genuen, eta, gerora hainbat eremu politiko eta instituzioetan aurkeztu dugu. Batzorde horiek ordezkaritza hirukoitza lukete: sindikala, jendarte zibil antolatuarena eta Administrazio Publikoarena. Horrela, honako hauek izango lirateke haren eginkizunak: (1) sektoreko eraldaketa proposamenak definitzea; (2) lan-gatazka zehatzetan bitartekaritza egitea, edo (3) esku-hartze publikoa behar duten enpresentzako edo sektoreentzako planak diseinatzea eta egikaritzea. Uste dugu batzorde horien proposamenak eta oinarrian duen logika borrokatuz jarraitu behar dugula hala instituzioetan nola lantokietan.

2.3 Burujabetza, eraldaketa sozioekologikoei buruz erabakitzeko

Aipatu ditugun hiru ardatzak planteamendu komun batek gurutzatzen ditu: burujabetza eta etorkizun hurbilean gertatu beharreko **eraldaketa sozioekologiko guztien inguruan demokratikoki erabakitzeko gaitasuna handitzea**.

Enpresen lehiakortasuna eta nazioartekotzea sustatzea ez doa noranzko horretan. Trantsizio ekologikoa kosta ahala kosta langile-klasearen bizkar egin ez dadin, burujabetza gehiago behar dugu lurraldeari, ekonomiari, ekoizpen-ereduari, etxebizitzari, energiari eta elikadurari dagokienez. Ezinbestekoa da Euskal Herriko langile klase guztia erantzat bizi-baldintza duinak bermatu ahal izateko. Burujabetza handitzeak eta bidea urratzeak datozen hamarkadetako zeregin sindikalen noranzkoa markatuko du.

Eraldaketa sozioekologikoen inguruko erabakietako asko Madrilen, Parisen edo Bruselan hartzen dira, legegintzako eta administraziozko prozesuen bidez, eta korporazioek lobby lana egiten duten euren epe labur eta ertaineko interes ekonomikoetan oinarrituta. Influentzia horren ondorioz, enpresa pribatu handiei gero eta erraztasun, administraziozko sinplifikazio, zuzeneko leihatila eta zuzeneko dirulaguntza gehiago ematen zaizkie, eta enplegua mantentzeko inolako baldintzarik ez zaie ezartzen. Horrela ez da lortzen bidezko trantsizio ekosozial bati behar den eskalan eta abiaduran heltzeko behar diren eraldaketak betetzea ere. Honela laburtu daiteke emaitza: gutxiegi, beranduegi eta bidegabeegi egiten da.

Euskal instituzioak Europar Batasuneko erabakietara lotuta daude hein handi batean, eta gure lurraldean aritzen diren enpresen interesen presiopean. Ikus dezakegu euskal administrazio publikoaren baliabide finantzarioak eta erreminta

teknikoak behin eta berriz erabiltzen direla enpresa pribatu handien interesei mesede egiteko. Gure instituzioek gaitasuna dute ekologia eta maila sozialean erabaki aurreratuagoak hartzeko, esaterako, energia berriztagarriak instalatzeko lurralde antolaketaren eremuan, garraio publikoko zerbitzuak hedatzeko, elikadura-eredu agroekologikoa lehenesteko, enplegua mantendu eta deslokalizazioa saihestuko duten laguntza publikoak jasotzeko baldintzak jartzerakoan, edo enpresek lortutako etekinen gaineko zergak aplikatzekoan.

Hala eta guztiz ere, beste eremu batzuetan, euskal instituzioek ez dute legegintzarako gaitasunik, esaterako, elektrizitatearen prezioetan; lan-arloko legedian; erregai fosilen erabilera eta ustiapena mugatzean; hainbat azpiegituretan, (portuetan eta aireportuetan); eta hala behar denean interes orokorragatik enpresak desjabetzean edo haietan esku hartzean, euskal langile klasearen bizi eta lan baldintzetan. Eraldaketa sozioekologikoez izango duten garrantzia aintzat hartuta, funtsezkoa deritzogu **euskal instituzioek dauzkaten eskumen guztiak noranzko horretan erabiltzea eta aldarrikatzen dugu legegintzarako gaitasuna zabal dadila beste eremu batzuetara**, lan harremanetarako eta babes sozialerako esparru propioa eraikiz, Euskal Herriko lurralde bakoitzerako nahi dugun estatus juridiko-politikora hurbiltzeko.

3. LAN ILDOAK

Egoeraren diagnostikoa egin dugu, baita LABek euskal langileriari eskaintzen dion proposamenaren oinarri ideologikoak mamitu. Ideia hauek lurreratu eta eskuhartze zehatzera jotzea dagokigu orain.

Gure iritziz, hiru dira sindikatuaren lan eremu nagusiak: Lehenik eta behin, tresna erabilgarria, eraginkorra eta ausarta izan behar dugu, enpresa pribatuek gidatutako ekoizpenaren berrantolaketa asmoei erantzuteko. Bigarrenik, eraldatu beharra duten sektore ekonomikoetarako bidezko trantsizio ekosozialaren proposamenak egin, eztabaidatu eta gatazketara eramane behar ditugu. Hirugarrenik, sindikalizatzeko zailtasunak dituzten sektoreetako (prekarizatuak, feminizatuak eta pertsona arrazializatu eta migratuak biltzen dituztenak, besteak beste) beharrei erantzun behar diegu, sindikatuaren jarduna ikuspegi intersektorialetik eta lantokietatik haratago hedatuz. .

Funtzio hirukoitz hori garatzeko, aliantza soziosindikalen bidea sakontzea dagokigu: gatazka zehatzetan, lurralde eremuan antolatuz eta maila politiko orokorrean. Jarraian, ekintza soziosindikal ekosozialistarako esku-hartzeko LABen tresna eta ildoak proposatzen ditugu .

3.1. Eraldatuko diren sektoreak

Dagoeneko jakin dezakegu zer sektoreri eragingo dieten gehien krisi ekologikoak eta kapitalaren berrantolaketa ekologikoak. Bidezko trantsizio ekosozialaren ikuspegitik, sektore batzuek haien jarduera eta inpaktua txikitu behar dute, esaterako, sektore petrokimikoak, siderurgiak, zementu-enpresek, zentral termikoak eta automobilgintzak. Beste sektore batzuek, aldiz, haien jarduera eraldatu eta handitu egin behar dute, adibidez, garraio publikoak, zaintza lanak, nekazaritzako elikaduraren sektoreak, hondakinen kudeaketarenak eta birziklapenarenak, eraikinen birgaitze energetikoak eta energia berriztagarriak.

Dena dela, badakigu sektore horietako enpresek planteatuko dituzten eraldaketak oso urrun daudela bidezko trantsizio ekosozialetik. Hori dela eta, gatazka eremuak identifikatzeko eta horiei aurre hartzeko beharra dugula azpimarratzen dugu; joera orokorrak, lege aldaketak eta plan korporatiboak aztertuz. Funtsezkoa da aurretik lana egitea une horietara ahalik eta ondoen nola iritsi planifikatzeko. Ez dugu itxaron behar itxiera, kaleratze edo enpresa berregituratzeko neurriak heldu arte. Aurreikuspenak egin eta plangintzak eratzea gure lan estilo bilakatu behar dugu.

Aurre hartzeko lan hori hiru era zehatzetan egin daiteke: Lehen, **sektorearen etorkizunaz eztabaidatzeko espazioak** sortuz eraldatzen ari diren sektore horietako ordezkariekin, afiliatuekin eta langileekin. Bigarrena, patronala eta enpresak interpelatuz, enpresa batzordeek eta sail sindikalek ahotsa izan dezaten etorkizuneko eraldaketen inguruko erabakietan.

Gatazka eta negoziazio kolektiboa hortik antolatzen hasi beharko ginateke: **enplegu eskubidea mantentzeko neurriak** lan-baldintzak, birkokatzeak edo ber kualifikaziorako laneko prestakuntza bezalako neurriak hartzea behartu araziz. Eta, hirugarrena, **sektoreak birmoldatzeko proposamen propioak** egitea, horiei buruz eztabaidatzea inplikaturako langileekin, ondore ekintza sindikaleko eta negoziazio kolektiboko esparruetara eramateko.

Enplegurako eskubidearen defentsaz ari garenean, adierazi nahi dugu badakigula egin beharreko eraldaketek zuzenean eragingo dutela lanpostu jakin batzuetan. Sindikalismo eraginkorra garatzeko, eta sektore horietako langileentzako bizi baldintza duinak bermatzeko konpromisotik, **paradigma aldatu eta enpleguaren defentsa estutik, enplegurako eskubidearen aldeko borrokara igaro behar gara**. Zehazki, horrek esan nahi du kasu gehienetan enplegu suntsiketaren aurrean, lanpostuak defendatuko ditugula. Baina era berean bultzatuko dugu berme zehatzak dituen trantsizio baten aldeko borroka aktibatzea, jarduera eraldatzeko alternatiba produktiboak proposatzea, sektoreen arteko joan-etorria

gaitzen duten prestakuntza espezifikoaren alde borrokatzea, erretiroa aurreratzearen alde borrokatzea, lanaldia murriztea, zaintza lanen erantzunkidetasuna ziurtatzeko neurriak, baita diru-sarrera duinak eta nahikoak bermatzeari buruzko akordioak borrokatzea. Borroka hauek gure banaketa hirukoitzaren proposamenaren logikari (enplegua, zaintza lanak eta aberastasuna) erantzuten diete.

Agerikoa da, eraldatu beharreko enpresa eta sektoreez ari garenean ez bakarrik baina gehien bat industriad ari garela, eta beraz, LAB sindikatuak trantsizio ekosozialerako **politika industrialaren proposamena berritu eta ardatz horien arabera hezurmamituko du.**

Bestalde, eraldaketak aurreratu eta planifikatze horrek barne hartu behar du bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren lanen merkantilizazioaren, prekarizazioaren eta banaketa desorekatuaren aurkako borroka ere. Hainbat sektorek handitu behar dute beren jarduera trantsizio ekosozialaren baitan, eta horietariko asko egun oso prekarizatuta daude. Horregatik da garrantzitsua zaintza sistema publiko komunitarioa defendatzea, kalitatezko zerbitzu publikoak defendatzea, etxebizitza duina eta oinarritzko hornidurak bermatzea, lanaldia murriztea eta zaintzak birbanatzea defendatzea, edo pertsona migratu eta arrazializatuaren eskubideak erregularizatzea eta berdintasuna defendatzea. Borroka horiek guztiek osatzen dutelako bizitza erdigunean jarriko duen sindikalismoa

3.2. Patronalak doikuntzak, kaleratzeak eta ixteak planteatzen dituenean

Patronalak trantsizio ekologikoa egokitzapenak, kaleratzeak eta itxierak egiteko, eta lan baldintzak okertzeko aitzakia gisa darabil. Horri erantzuna eman behar zaio, trantsizio ekologikoaren premia ukatu gabe, baina haien hipokrisia seinalatuz eta eraldaketa hori egiteko modu zehatza disputatuz.

Mota honetako erasoei aurre egiteko hiru tresna nabarmendu behar ditugu: (1) Bidezko Trantsizio Ekosozialeko Batzordeak ezar eta aitor daitezen eskatzea; (2) gatazkan dagoen enpresarako trantsizio ekosozialeko proposamen propioak egitea, eta (3) lanaldia soldata jaitsi gabe murriztu dadin eskatzea. Lehena deskribatu dugu dagoeneko, eta, beraz, beste biak aipatuko ditugu jarraian.

Gatazkan dauden enpresetarako bidezko trantsizio ekosozialaren proposamenak instituzio publikoak interpelatzin ditu, era aktiboan inplika daitezzen. Birmoldatze industrialeko proposamenak itxiera-gatazketan erabili dira duela gutxi, esaterako, Bartzelonako Nissanen, Italiako GKN fabrikaren eta Bizkaiko Mecaneren. Hiru kasuetan, ixteko erabakia ezagututa, sindikatuak eta langileek proposamen bat egin zuten: ekologikoki eta sozialki beharrezkoak diren produktuak ekoizteko birmoldatze industrialak proposatu zen eta instalazioak eskuratzeko instituzioak era aktiboan inplika zitezela eskatu zuten.

Hala, egoera kritikoei gatazkaren esparru politikoa zabalduz erantzuteko tresna bat dugu eta horrek ekoizpen-eremua birpolitizatze berritzailea du: zer ekoizten dugun, nola ekoizten dugun eta norentzat ekoizten dugun; horren inguruko funtsezko elementuak eztabaidan jartzen ditu. Gainera, aukera ematen digu politikoki auzitan jartzeko instituzioen egungo industria-politika berdea, haren izaera korporatiboa ikusarazteko eta exijitzeko baliabide publiko horiek gatazkan dauden enpresetako langileek defendatzen duten industria-birmoldatzerako erabil daitezela. Azkenik, jabetzaren inguruko auzia mahaigaineratzen du.

Horrelako proposamenak (langileek proposaturiko birmoldaketa planak) ezin ditugu ekinza sindikaleko gainontzeko ekinbideetatik deslotu. Garrantzitsua da alternatibak badirela adieraztea, eta horiek diseinatzeko enpresa zein instituzioei dagokien erantzukizuna eskatzea. Modu berean, alternatibak aldarrikatu eta eraikitze bidea tentuz garatu behar dugu eta esperientzia bakoitzetik irakaspenak ateratzen jarraitu, besteak beste, halako egitasmoek lantokiez gain eskualde edota herrialdeko irismena duten eraldaketak beharrezkoak dituztelako eta horrek inplikatzin duena ezin dugulako sindikatuok bakarrik gure gain hartu.

Soldata jaitsi gabe lanaldia murrizteko aldarrikapenaren helburua da enplegu galeraren alternatiba izatea. Asko eta asko dira sektore zehatzetan lan-karga murriztea ekarriko duten ekoizpenaren birmoldaketak. Esate baterako, automobilgintzan ibilgailu elektrikorantz jotzearen ondoriozkoa, edota siderurgiakoa eta zementugintzakoa, non prozesu batzuk automatizatzea eta gutxiago kutsatuko duen ekoizpen-prozesu batera aldatzea planteatzen ari diren. Horrek ezin ditu berekin itxiera eta kaleratze traumatikoak ekarri: lanaldia nabarmen murrizteko egin behar dugu lan, lan-karga birbanatu eta eraldaketak nolabait arindu ditzan.

Gainera, lanaldia murrizteko borroka hiru planotan egiten du ekarpena; modu ofentsiboan, baldintza materialak berehala hobetzeko; modu defentsiboan, ekoizpenaren berrantolaketaren inpaktu traumatikoa arintzeko; eta bestelako eraldaketak ahalbidetzeko, esaterako, zaintza lanak birbanatzea.

3.3. Zerbitzu publikoak eta eskubide sozialak hedatzea

Arestian esan dugu posible dela energiaren eta materialen erabilerari dagokionez desaztea, eta, aldi berean, langile sektore zabalen bizi-baldintzak hobetzea. Aukera hori egia bihurtzeko konfrontazio eta borroka handia behar da. Borroka sindikalak helburu horiekin bat egin dezake, fokua zerbitzu publikoak eta eskubide sozialak hobetzean eta zabaltzean jarritz. Horretarako, ahaleginak bi eremutara bideratu behar dira: lantokietako gatazka eta antolaketa indartuz eta instituzioak politikoki interpelatuz.

Instituzioei indar handiago batekin exijitu behar diegu hainbat eremutan bereziki finantzaketa handitzeko, zerbitzua zabaltzeko, enpleguak ugaritzeko eta zerbitzu publiko funtsezkoetako lan baldintzak hobetzeko (besteak beste, garraio publikoan, jangela kolektiboetan, hezkuntzan, azpiegitura publikoetan, zaintza-lanetan eta osasungintza publiko unibertsal eta kalitatezkoan). Dena den, hondakinen kudeaketaz edo basogintzaz ere aritu gintezke. Borroka batzuk ibilbide luzea dute gurean, hala nola osasun publikoaren defentsa edo, bizitzaren sostengurako funtsezko sektore feminizatu baten prekarizazioarekin amaitzeko zaintza-sistema publiko-komunitarioaren aldeko borroka.

Lantokietan, ekintza sindikal ofentsiboa indartu daiteke, sektore horietan jarduera handitzeko eta bertako lan-baldintzak hobetzeko eta herritar guztientzako eskubideak ziurtatzeko.. Ildo horretan, langileen lan- borroka auzoetako eta herrietako aldarrikapen sozialekin bateratu beharko genituzke. Garraio publikoa handitzeko eta hobetzeko borroka sindikala langileekin eta zerbitzua erabiltzen duten herritarrekin egin daiteke. Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren hitzarmen kolektiboaren inguruko gatazka udalak argitaratzeko aldarrikapenarekin bateratu daiteke. Haurren jaiotza tasaren beherakada garaian eduki ekosoziala sartzeko hezkuntzako borroka figura eta lanpostu berriak borrokatuz gara daiteke.

Berriz diogu, dagoeneko egiten ari garen praktika sindikalari krisi ekologikoaren aldagaia gehitzeaz ari gara, enpleguan eta bizi baldintzetan hobekuntzak lortu eta sektore horietan trantsizio ekosozialean aurrera urrats nabarmenak dakartzaten aldarrikapenak sustatuz. Ildo horretan, trantsizio ekosozialean aurrerapen nabarmena da garraio publikoko langile-kopurua handitzea, administrazioan lan egiten duten pertsonentzako mugikortasun neurri zehatzak lortzea edo helduen egoitzetako langileen prekarizazioari aurre egitea.

Horrez gain, energiaren eta materialen kontsumoa txikitu bitartean lan baldintza duinak bermatzeko, eguneroko bizitzaren askotariko eremuak eztabaidatu behar dira, eta hori lotuta dago LABen hainbat urtez garatu ditugun ekintza soziosindikalaren lan lerroekin. Zaintza lan guztiak birbanatzearen aldeko borroka negozioak kolektibora eramatea eta zaintza sistema publiko komunitarioaren aldeko borroka edota langile migratuen prekarizazioaren kontrakoa edota arrazakeria labolari aurre egitea. Gure apustu sindikalak erantzuna eman behar die jatorriz zein arrazaz geroz eta anitzagoa den, zahartzen ari den, gero eta prekarizatuagoa dagoen eta genero-arrakala sakonak dituen Euskal Herriko langile-klaseari. Are gehiago, krisi ekologikoak ardaztutako gatazketan langileen interes orokorren eta gatazkan dauden langileen interes zehatzen aldeko lan politizatzailea eta pedagogia egin beharko dugula jakinik.

3.4. Negoziazio kolektiboko klausulak

Etorkizuneko lan gatazkei erantzutetik harago, sindikalismo ekosozialistak bidezko trantsizio justuaren alde egingo duen aldarrikapen sorta ere eraman behar du negoziazio kolektibora. Horrek aukera emango digu gure indar sindikala erakusteko egoera ekonomiko onean dauden enpresetan, eta langile klasearen aldeko eraldaketa produktiboa bermatzeko.

Lau eremu azpimarratuko ditugu, negoziazio kolektiboan bidezko trantsizio ekosozialaren aldeko borroka txertatzeko: (1) lan osasuna; (2) lantokirako mugikortasuna; (3) isurpenen, energiaren eta materialaren diagnostikoa eta inpaktua gutxitzeko neurriak eta (4) ekoizpenaren eraldaketari heltzeko eztabaida-esparruak.

Ez da kasualitatea mugimendu ekologistaren eta mugimendu sindikalaren arteko lehen aliantza historikoak lan osasunaren arloko arazoen bueltan gertatu izana. Elkargune ugari daude, eta horietan lan baldintzen hobekuntzak krisi ekologikoari ere erantzuten dio: muturreko beroaren aurkako prebentzioa eta nekazaritzan agrokimikoen erabilera murriztea, besteak beste. Bestetik, langileek muturreko fenomeno meteorologikoen aurrean —uholdeak edo haize bortitzen arriskuak daudenean— duten babesa, eta lantokitik alde egiteko eskubidea ere gehitu behar diogu. Sektore guztietan modu batean edo bestean aintzat hartu behar ditugu elementu horiek eta garrantzitsua da prebentzioa eta aurrea hartzea jakinik ere modu ezberdinean dutela eragina sektoreen ezaugarrien arabera.

Horrez gain, laneko istripuen aurkako borroka ere lotuta dago krisi ekologikoarekin. Horren adibide bat Gipuzkoan topatu dugu, non laneko heriotza-tasarik handieneko sektorea basogintzakoa baita: mendi gehiena pribatua da, monolabore intentsibokoa eta langile migratuen presentzia nabarmenarekin.. Horrek aukera ematen digu laneko osasuna eta baso-kudeaketa jasangarri eta integralaren eskakizuna aldi berean lantzeko. Arazo-mota horiek guztiak negoziazio kolektiboan txertatu ditzakegu.

Lanerako mugikortasunak ere aipamen berezia merezi du. Hiru arazok bat egiten dute hemen: laneko osasuna, inpaktu ekologikoa eta gastu ekonomikoa. Laneko istripuen % 10 trafiko-istripuak direla estimatzen da eta horietatik % 70, in itinere. Joan-etorri horiek gehienbat ibilgailu partikularretan egiten dira: Gipuzkoan, lantokirako joan-etorrien % 62 autoan edo motoan egiten dira. Hortaz, langile klaseak bere burua behartuta ikusten du Euskal Herriko isurpenen eragin eta kontsumo energetiko handiena duen eremua (garraioa) are gehiago indartzen. Gainontzeko eremuetan bezala, errealtate hau ez da homogeneoa eta arrazak zein generoak ardaztutako desberdinkeriak ematen dira. Sektore prekarizatu, feminizatu eta arrazializatutakoak dira lantokira joateko garraio publikoa gehien erabiltzen dutenak. Horregatik garraio publikoaren murrizketek eta auto partikularrekiko dependentzia areagotzen duten eraldaketak dagoeneko existitzen diren arrakaletan sakontzea dakar.

Azken aldiko lege aldaketen ondorioz, nahitaezkoa da “Lantokirako mugikortasun-planak” egitea 100-200 langile baino gehiagoko enpresetan. Badakigu enpresek mugikortasun-plan horiek zeharo modu kaskarrean garatuko dituztela. Dena den, legezko betebeharrak horrek euskarri bat ematen digu eremu horretan negoziazio kolektiboa indartzeko, eta lan osasuna, inpaktu ekologikoa eta langileen gastu ekonomikoa nabarmen hobetuko dute proposamen anbiziotsuak egiteko. Ibilgailu pribatuaren erabilerarekiko mendeotasuna txikitzeke neurriak exijitu behar ditugu, baita enpresak garraio kolektiboko aukera errealistak jar ditzala eta kostua bere gain har dezala ere. Beti sektore bakoitzari eta bertan lanean ari diren pertsonen errealtateari egokituta.

Horrekin guztiarekin batera, informaziorako eta kontsulta egiteko eskubidea aldarrikatu behar dugu, enpresetan kontsumo energetikoari, berotegi efektuko gasen isurpenari eta ondasun naturalen erabilerari buruzko diagnostikoa egin eta eman ditzaten. Industria-sektoreko enpresa batzuk legez behartuta daude haien kontsumo energetikoari edo isurpenei buruzko auditoretzak egitera. Eremu horretan ekintza sindikala indartu nahi dugu, eta diagnosi hori eremu gehiagotara zabaltzea dadila eskatu. Horretarako, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta inpaktua txikitzeke bide

posibleei buruzko eztabaida planteatuko dugu. Era berean, enpresen hornidura kateen lan baldintzei eta baldintza ekologikoei buruzko informazioa eskatzeko aukera ere badugu. Horrela, gure enpresak baliatzen ari diren estraktibismo neokolonialeko dinamikak azalarazi eta hornidura kateen baitako klase elkartasuna garatu dezakegu.

Azkenik, enpresei exijitu behar diegu etorkizuneko ekoizpen-eraldaketetan langileon protagonismoa bermatzeko, horretarako eztabaida eta negoziazio kolektiboko esparruak jarritz. Horrek, gainera, lotura du aurretik landutako gaiekin: plangintzarekin, parte hartzearekin eta gatazkei aurre hartzearekin. Enpresari exiji diezaiokegu erabakiak langileei eta enpresa-batzordeari bizkarra eman ez hartzeko, bereziki legez haien ekoizpen-prozesua aldatzera behartuta egongo diren sektoreetan. Hain zuzen, aurreikusi daitezkeen egokitzapenei edo berrantolakuntzei aurre hartuz lortuko dugu indar korrelazio hobea eraldaketen norabidean eragiteko.

Lau eremu horietan, era transbertsalean, sindikatuak aspalditik defendatu izan dituen aldarrikapenak daude, esaterako, lanaldia murriztea soldata jaitsi gabe eta zaintza lanak birbanatzea. Bidezko trantsizio ekosozialaren premiak indartu egiten ditu eskari horiek eta garrantzi handiagoa ematen die. Bestalde, parte hartze esparruak zabaltzeko moduak sustatu eta bilatu behar ditugu, enpresak dauden tokiko herri eragile antolatuek ere leku bat izan dezaten.

3.5. Lurraldean hedatutako ekintza soziosindikala

Esana dugu sindikatuaren esku-hartzea ez dagoela lantokietara mugatuta. Hamarkadak daramatzagu lurraren defentsari lotutako borroketan makroproiektu ekoiziden eta espekulaziozkoen aurka, elikadura-subiranotasunaren alde, baita proposamen politikoak bultzatzen ere (jangela ereduan edota arrantza-sektorean adibidez). Horrek erreferentziatzko bihurtu du sindikatua.

Gure komunitatea modu askotara dago murgilduta borroka sozial guztietan eta, horrenbestez, baita mugimendu ekologistan ere. Engaiamendu horren ondorioa ere bada dokumentu honen hitzaurrean deskribatu dugun errealitatea, eta adierazi beharra dago, beste leku batzuetan ez bezala, herri honetan sindikalismo borrokalaria eta kontraboterezko mugimendu ekologistetatik oso hurbil aritu dela, harekin aliantza eginez.

Egindako ibilbidea emankorra izanik ere, badugu zer hobetu. Militantzia sozialari lotutako gure kultura politikoak harreman hori natural bihurtu du, baina, gehienetan, sindikatuko afiliatuek beraiek bultzatu dute esku hartze ildo, egiturako eremu jakin batzuekin kontaktuan. Ildo horretan, programa sozioekonomikoan berritutako proposamena eta sindikatuaren nortasun ekosozialistak LABen borroka soziosindikalak antolatzeko moduez eta ikuspegiaz hausnartzera garamatza.

Antolakuntza eraginkorra behar da, ezinbestean, eskualdeetan Bidezko Trantsizio Ekosozialeko Batzordeak formula gisa aldarrikatzeko, bai enpresa-gatazkei eta sektoreen etorkizunari heltzeko, bai makroproiektuetatik defendatzeko, bai lurraldeari lotutako alternatibak garatzeko. Abiapuntu hori kokatu genuen, besteak beste LABen Ekintza Sozialeko Komunitatea sortzeko. Apustu hori ezin izan da bete-betean garatu, gehienetan multimilitantzia proposatzea izan delako emaitza. Lurraren defentsan, LABen afiliatutako kideak dagozkien plataformetan antolatzen dira, baina ez sindikatuan.

Horregatik hausnarketa bi noranzkotan eguneratu nahi dugu. Lehenik eta behin, uste dugu garrantzitsua dela sindikatuak gatazka horiei sindikalismotik bertatik heltzea. Askotan, mugimendu ekologisten diskurtsoa eta ikusmoldea errepikatu besterik ez dugu egin, eta gure funtziorik bereizgarriena alde batera utzi dugu: langile klasearen interesak eztabaidan kokatzeko ahalegina egitea. Uste dugu diskurtsoan eta praktikan findu behar dugula batez ere norabide bikoitzean: batetik tokiko gatazka eta borroka ekologistetan begirada sozio sindikalararekin arituz; eta bestetik gatazka sindikalak auzo eta herrietan trantsizio ekosozialaren ikuspegitik landuz.

Bestetik, gure komunitatearen antolakuntzari dagokionez, funtsezkoa deritzogu, dagoeneko aktibo diren militanteen saretzean ahalegina mantentzea baina batez ere aktibatuta ez dagoena aktibatze saiakera egitea. Azken horretarako, eskualdean dauden gatazkak afiliatuei helarazteko tartea hartu behar dugu, hala egoerak eskatuta espazio espezifiko

bidez (gai hori soilik lantzeko bilera puntualen bidez) nola gure eguneroko agendan deialdiak txertatuz.

Gatazka horiekin batera, ezin ditugu aipatu gabe utzi eremu askotako alternatiba ekonomikoak eraikitzeko ekimenak, energia eta elikadura subiranotasuna eraikitzen aurrera egiten dutenak. Sindikatuaren lehentasunezko jarduera-eremua ez bada ere, gure ekintza soziosindikala haiekin harremanetan egon beharko da, babestu egin beharko ditu, eta egokien deritzon bultzatu ere bai.

GLOSARIOA

Krisi ekologikoa | Termino horrekin izendatzen dugu gure ekoizpen eta kontsumo-sistema ekosistemetan eta ziklo biofisikoetan sortzen ari den inpaktuen multzoa. Dokumentuan deskribatzen denez, krisi ekologikoa krisi kapitalista zabalago baten parte da, beste aldagai batzuk biltzen dituena, esaterako, zaintza krisia eta erreproduzio soziala. Ingurumenari dagokion eremua izendatzeko termino hori erabiltzea erabaki dugu, baina inola ere ez dugu fenomeno isolatutzat jotzen. Ez dugu beste termino batzuk erabiltzea erabaki, esaterako, krisi ekosoziala, uste dugulako huts egiten duela egungo errealitate osoa izendatzeko saiakeran: ez gara arazo ekologiko eta sozial multzo bati aurre egiten ari, baizik eta kapitala metatzearen krisi bat, orotariko moldeak hartzen dituena.

Eraldaketa sozioekologikoa | egungo krisi ekologikoari erantzuten saiatzen diren ekoizpenaren eta kontsumoaren egituraren aldaketak deskribatzeko darabilgu. Termino honi izaera "neutroa" ematen diogu, hau da, barruan hartzen ditu hala kapitalak bere etekinak langile-klasearen ongizatearen bizkar mantentzeko sustatutako aldaketak nola gizarte-arloko eraldaketa-saiakera aurrerakoia goak. Batzuetan, "trantsizio ekologiko" terminoa ere erabili dugu zentzu berarekin, baina saihesteko ahalegina egiten dugu, ahal den heinean, inplizituki jakintzat ematen baitu egiazko trantsizio bat gertatzen ari dela, askotan egia ez denean. Trantsizio sozioekologikoaz ari garenean, ekoizpena berrantolatzen duten prozesuak deskriba daitezke, halaberrez trantsizio ekologiko positiborik ez dakartenak.

Trantsizio energetikoa | Termino hau erabiltzen dugu sistema energetikoaren eraldaketa deskribatzeko, zeinean erregai fosiletan oinarritutako energia-iturriak aldatu egiten baitira, gehienbat eguzkian eta haizean oinarritutako energia-iturri berriztagarrien mesedetan.

Bidezko trantsizio ekosoziala/trantsizio ekosozial justua | Horrekin, krisi ekologikoari erantzuteko eta langile-klasearen alde defendatzen dugun eraldaketa sozioekologikoaz ari gara. Zentzu positiboa du guztiz, eta enpresek edo gobernuek planteatzen dituzten eta langileen bizi-baldintzak okertzen dituzten bestelako eraldaketetatik aldentu nahi du. "Ekosozial" darabilgu, eta ez "ekosozialista", oraindik ere sistema kapitalistaren menderakuntzapeko hainbat neurri eta eskakizun deskribatzen ditugulako: ez litzateke zehatza izango trantsizio ekosozialistaz hitz egitea energia berriztagarrien zentral baten jabetza publikoaz aritzeko, kapitalismoaren mendean dabilen bitartean.

Ekosozialismoa | Termino hau hautatu dugu xedetzat dugun jendartearen helmuga deskribatzeko, hau da, langile-klasearen alde egungo krisi ekologikoa sakonean jorratzeko moduko sistema sozioekonomikoa. Honako hauek osatzen dute helmuga hori: sektore estrategikoen kontrol publikoak; ekonomiaren plangintza ekonomikoa; eta eguneroko bizitzako funtsezko eremuak, hala nola, etxebizitza, garraioa eta oinarritzko hornidurak desmerkantilizatzeko. Gainera, termino bera darabilgu guk praktikatu nahi dugun sindikalismoarentzako adjektibo gisa, hartuko ditugun jarrera politikoak eta estrategiak deskribatzeko. Bi kasuetan, sistema kapitalista, patriarkal, arrazista eta kolonialaren aurkako borrokaren zerumuga eta praktika sindikal gisa ulertzen dugu ekosozialismoa. Horregatik, gure sindikalismo ekosozialista, feminista eta antiarrazista ere izan behar du.

